

SAGARDOA

berria

Testuak: Joxi Ubeda

SAGARDOAREN MAUKA

JON URBE / ARGAZKI PRESS



GURUTZETA TOLARE-SAGARDOTEGIA

BERRIKUNTZA ETA TRADIZIOA
SAGARDO NATURELEAN

Egunero irekia,
eguerdi eta gauean.
I Gandetan itxita

20€ko MENUA

astelehen, astearte eta ostegunetan

Bakailao tortilla + Txuleta + Intxaurrek,
gazta eta irasagarra



SAGARDOTEGIRA
BISITAK
ANTOLATZEN
DITUGU

Gurutzeta Sagardotegia
Oialume bidea • Astigarraga • Gipuzkoa
Tel.-Faxa: 943-55 22 42 • gurutzeta@gurutzeta.com
www.gurutzeta.com

Sagardotegi hoberenetan gaude

on egin!

Red Meat
TXOGITXU
Basque Gastronomy

**TXO
GI
TXU**

txogitxu.com





Txotxa duela 60 urte inguru sorturiko ohitura bat da. JON URBE / ARGAZKI PRESS

UZTA ONA

Guztira 12,5 bat milioi litro sagardo egin dira Euskal Herrian 2014ko uztan; horretarako, %50 inguru erabili da hemengo sagarra, eta gainerakoa kanpotik ekarri behar izan da.

2014. urteko uztako sagardoa prest dago sagardotegietan. Euskal Herrian oso uzta desberdina izan da tokiaren arabera, inguru batzuetan sagar kopuru handiak izan baitira eta beste batzuetan txikiagoak, udaberrian

eta udan izandako eguraldiak eraginda.

Aurtengo sagardoaren ezaugarri orokorrak zehaztea ez da erraza, erabili den sagar motak, inguruak eta kanpotik ekarri den sagarraren arabera. Baina, oro har, sagardo freskoak, arinak eta edanerrazak dira, tanino edo polifenol gutxiagokoak, eta iaz baino gradu alkoholiko txikiagoarekin kasu askotan.

TXOTXI, TXURRUT! EDO 'MOJON'!

Txotxa orain dela 60 urte inguru sorturiko ohitura bat da. Sagardoa eta sagardotegiak gain behera hasi ziren, eta susperraldi garaian, sagardotegi batzuk sagardoa berriz ere saltzeko egiten hasi zirenean, zenbait elkarte gas-

tronomikotatik eta tabernatetik hasi ziren sagardotegietara joaten sagardoa probatzera.

Sagardotegietan txotxetik edo ziritik probatzen zuten upeletako sagardoa, eta gustuko zuten upeletik sagardoa botilatzen zuten, beren elkartera, tabernara edo etxera sagardo botilak eramateko. Berez, sagardoaren gaineko jakinduria behar duen jarduna da, etorkizunean upelekoa nolako sagardoa izango zen jakin behar baitzuten bezeroek, sagardogilearen laguntzarekin.

Azken urteetako sagardotegien ohiko txotx garaia aurretik ere, sagardotegietan ere bazen sagardoa edan edo otordu bat egin eta sagardoa edateko ohitura. Euskal Herri osoan oso hedatua zegoen, eta gaur egungo jatetxeen eta tabernen aurrekoa da, baina normalean jendeak sagardotegian egon ondoren ez zuen izaten sagardoa eramateko helburua. Gehienetan sagardoa kanilatik zerbitzatzen zen, edalontzira edo pitxerrera.

Txotxaren ohitura hasi zenean, bezeroak jateko zerbait eramaten hasi ziren, sagardoak dastatzen ziren bitartean jateko. Aurrerago sagardogileak hasi ziren bezeroei jateko ere zerbait jartzen, eta poliki-poliki gaur egun hain hedatua dagoen ohiturak oihartzun handiagoa izan zuen.

Gaur egun sagardoa aukeratzera baino sagardoak probatzera joaten da jendea sagardotegira, aspaldiko ohiturari jarraitzen dionik ere baden arren. Sagardogilearekin sagardoaren inguruko ezaugarrien gainean hitz egin eta sagardotegiko menua dastatzen da bertan. Upele bat irekitzerakoan sagardogileak normalean oihu egiten du: txotxi!, txurrut! edo mojon!



LIZEAGA

Sagardotegia | Astigarraga | © 943 468 290

Lizeaga Sagardoa, hori gozamina!

edan eta eman edatera



«Txotx
garaiak
garrantzi
berezia du»

LUIS INTXAUSPE •
Hemaniko alkatea

*Giro ederra egongo da
Hernanin txotx garaian.
Lagun ugari ibiliko da
sagardotegietarako
joan-etorrian.*



HERNANIKO UDALA

Konturik txikiak ere
KONTU HANDIZ LANDUTA

Sagardo naturala
Zelaia
Sidra natural

MARTINDEGI 29
20120 HERNANI, GIPUZKOA
943 555 851
zelaia@zelaia.es www.zelaia.es

Txotx garaian, Hernaniko Udalak, hainbat zerbitzu martxan jartzeaz gain, neurri berezi batzuk hartuko ditu, eta zenbait aholku emango dizkie sagardotegietara joan nahi dutenei. Halaber, hainbat ekitaldi antolatuko ditu, eta Hernani ezagutzeko zenbait aukera proposatuko dizkie bisitariei. Horri guztiari buruzko informazioa, baita sagardoaren kulturaren ingurukoa ere, www.hernani.eus helbidea lor daiteke.

Zer ekarriko dio txotx garaia Hernaniri?

Gauza asko. Hernanin tradizio handia dago sagardoaren inguruan. Dolare sagardotegi asko daude. Hamabi sagardotegi daude, sagardotegia komertzializatzen dutenak, hau da, bazkariak eta afariak ematen dituztenak, baina sagardoa baserri askotan egiten da, nahiz eta sagardotegi bezala lan egiten ez duten.

Txotx garaia garrantzi berezia du, lehenengo sektorean jarduera ekonomiko garrantzitsu bat delako, gaur egun eta historikoki. Gaur egungo txotx garaia bestelako sektore batzuetan ere enplegua eta aberastasun ekonomikoa sorrarazten du.

Sagardotegietan ez ezik, tabernetan eta kafetegietan nabarmena da txotx garaia eragina.

Eta sektore gehiagotan ere bai. Okinek ogi gehiago saltzen dute, harakinek haragi gehiago, gazta eta intxaurrak ere saltzen dira... Tabernetan eta kafetegietan lan handiagoa egiten dute, eta baita dendetan ere. Azken urteetan, ohitura aldatzen ari da. Gaueko sagardotegiko afaria izan beharrean bazkaria izaten da gehiago; fenomeno bat da. Orduan, arratsaldeetan denda batzuk irekitzen hasi dira, eta salmentak egi-

ten dituzte. Gero, taxiek ere lan handiagoa izaten dute.

Garai honetan enplegua sortzen da, nahiz eta hiruzpalau hilabeterako izan: sagardotegietan jendea behar dute janaria prestatzeko eta zerbitzatzeko, eta tabernetan normalean baino zerbitzari gehiago behar dituzte. Zenbait sektorek edo dendak urtean egiten duten lan handiena hilabete horietan egiten dute.

Txotx sasoiaren Hernanin jende asko ibiliko da, bisitari ugari etorriko da. Hori nola kudeatzen duzue?

Duela urte batzuk txotx batzordea sortu genuen. Urtero, hainbat eragile biltzen gara batzorde horretara: udaleko ordezkariak, eta sagardogileen, tabernarien eta kaxkoko edo hiriguneko auzo elkartearen ordezkari batzuk. Guztien artean antolatzen dugu txotx garaia. Udaleko ordezkariak dira alka-tea, udaltzainburua eta turismo teknikaria. Guztira, hamabi bat lagun elkartzen gara, eta etorriko den jende uholde horren eragina neurtzen dugu.

Txotx garaian udaltzaingoa indartu egiten dugu. Asteburuetan udaltzain gehiago aritzen dira lanean, eta kalean presentzia handiagoa dute; tabernak dauden kaleetan, eta baita trafikoa -autoak eta autobusak- antolatzeko ere. Kalean komun publiko gehiago jartzen ditugu, tabernen inguruan gehienbat, eta garbiketa zerbitzu berezi bat jartzen dugu. Batetik, udalak daukan kale garbiketako zerbitzua asteburuetan indartu egiten da, eta, bestetik, tabernariak martxoko larunbat gauean hondakin bilketa berezi bat egiten dute.

Txotx batzordeak neurri horiek lan-tzen ditu, eta urtez urte aztertu beha-

rreko bestelako kontu batzuk ere bai. Hitzarmen bat sinatzen dugu Hernaniko Udalaren, tabernarien eta sagardogileen artean.

Hernaniko Udalak urtero hainbat aholku ematen ditu txotx garaia begira, errespetua eta zentzuz jokatzea azpimarratuz.

Aurten, eraso sexistaren arazo arreta handiz aztertu dugu. Azken hilabeteetan sarritan entzuten den kontu bat da, eta gure herrian ere kasu batzuk izan dira. Askotan eraso sexistak udako jaiekin lotzen ditugu, baina ez da horrela, eta txotx garaian ere horrelako kasu batzuk gertatu izan dira.

«Hamabi sagardotegi daude Hernanin, baina sagardoa baserri askotan egiten da»

«Txotx garaia enplegua eta aberastasun ekonomikoa sorrarazten du»

Aurten, karpaina berezi bat prestatzen ari gara gai horren inguruan. Bate-tik, komunikazioarekin lan egingo da, eta gero protokolo bat landu da sagardogileekin eta tabernariekin, horrelako eraso bat tabernaren batean edo sagardotegiren batean gertatzen denean zer egin zehazteko. Protokolo horretan neurri batzuk planteatzen dira.

Esaterako, taberna batean gertatzen bada, musika kendu eta argiak piztu, gertaera ikusarazteko. Horrekin batera, tabernariei eta sagardogileei formazio ikastaro labur bat eskainiko zaie, horrelako zerbitzu gertatzen denean zer egin behar den jakinarazteko. Eraso sexualen kontua arazo kezkarri bat da, eta aurten indar handiz aurre egin nahi diogu.

**Egin txotx eraso sexistarik gabeko
Hernaniren alde!**

www.hernaniturismoa.com **bisita gaitzazue!**

Hernanin ondo zaintzen zaitugu, zaindu Hernani.

«Txotx garaiak eragin handia izaten du»

ANDONI GARZIA • Astigarragako alkatea

Festa giro lasaia egongo da Astigarragan txotx sasoian. Jende ugari etorriko da herriko sagardotegietara.

Ohiko bihurtu denez, www.astigarraga.net helbidean lor daiteke Astigarragako Udalak txotx garaian martxan jarriko dituen zerbitzuen, hartuko dituen neurri berezien eta antolatuko dituen ekitaldien inguruko informazioa, baita Astigarragan dauden sagardotegiei buruzko informazioa ere.

Txotx sasoiak nondik norako oihartzuna izango du Astigarragan?

Txotx garaiak eragin handia izaten du alderdi askotatik, hainbat lekutan. Batetik bat, asteburuetan nabaritzen da jendetza kaleetan. Azken urteetan, gehienbat, martxoko larunbat eguerdian biltzen da jendetzarik handiena Astigarragara. Betiko bizimoduan bizilagunekin eta arazoak sor litezke, baina azken urteetan gauza nahiko lasaitu da alde horretatik, eta, jende asko etor-

tzen den arren, asmo onez etorri ohi dira.

Jendea giro ederrean eta lasai ibiltzen da.

Batetik, tabernetan jende asko egoten da, eta normalean larunbat arratsaldetan lasai hartzen duzun kafetxea jendez inguratuta hartuko duzu, baina ez da beste munduko ezer izaten. Bestetik, Sagardoetxea sagardoaren museoa Astigarragan bertan daukagu, eta txotx garaian bisitari ugari izaten dira.

Udalak hainbat neurri berezi hartzen ditu sasoi honetan.

Bi udaltzain gehiago kontratatzen dira, otsail eta martxo inguruan gaueko zerbitzua eskaintzeko; ostiral eta larunbat gauetan eta igandeetan ere errefortzua izaten da, gerta daitezkeen arazoei aurre egiteko. Trafikoa gobernatzeko eta dena txukun joateko. Askotan, jen-




**OIALYME
ZAR
SAGARDOTEGIA**

MIKEL AROZAMENA
BIDEA 16
20115 ASTIGARRAGA

943-55 29 38
722380416

igande eta astelehenetan izan ezik



GARTZIATEGI
TOLARE-SAGARDOTEGIA

XVI. mendetik
Sagardotegia

BITTOR LIZEAGA

Gartziategi Baserría - Tf.: 943 46 96 74 - ASTIGARRAGA - www.gartziategi.com



ANDONI CANELLADA / ARGAZKI PRESS

dea sagardotegietara eramaten duten autobusak herriguneraino ez sartzen saiatzeko eta kanpoaldean aparkatzeko aholkua emateko. Bestela, azkenean, autobus horiek pilatu egiten dira, baita zerbitzu publikoko autobusak ere. Eta kale garbiketa zerbitzua ere indartu egiten dugu, asteburuetan eta igandeetan batez ere, kaleak garbi egiteko.

Sagardotegietan ez ezik, tabernetan, kafetegietan eta dendetan ere nabarmena da izango da txotx garairen eragina.

Batik bat, sagardotegietan eta tabernetan. Hemen ditugun dendak txikiak dira, baina inguruan dauden enpresek, ogia egiten dutenek eta abarrek, horiek nabaritzen dute txotx garaian sagardotegiek lan handiagoa egiten dutela. Eskari handiagoa izaten da, okindegietan esaterako. Baita haragia ekoizten duten enpresetan ere, baina enpresa horiek askotan ez dira Astigarragakoak, inguruko herrietakoak baizik.

Txotx garaian, herriko gazte askok lan egiteko parada izaten dute, tabernetan eta sagardotegietan, eta enplegu iturri nahiko garrantzitsua da.

Beraz, txotx sasoi garrantzitsua da Astigarragarentzat.

Bai, herrian eragiten du. Txotx irekiera ekitaldia hemen egiten da, eta udalak egun horretan hainbat ekitaldi antolatzen ditu, girotzeko eta festa hori herri-tarrei gerturatzeko: upelak herriko tabernetan jartzen ditugu, jendeak sagardoaz txotxaren bidez goza dezan, pintxo batzuk ere bai...

Urte osoan, berriz, Astigarragako herritarrok badakigu non bizi garen, eta uste dut harro gaudela gauden herrian gaudelako. Orain dela hamar urte, egoera petralagoa zen, askoz jende

gehiago etortzen zelako eta arazo eta tirabira batzuk sortzen zirelako; baina azken urteetan, bizilagunen kezarik eta inolako arazorik ez da izan, zarata edo beste konturen bat dela eta. Horretan, kontu horiek konpontzen, Astigarragan asmatu egin dugu.

Udalak urtero hainbat aholku ematen dizkio sagardotegietara etortzen den jendeari, errespetua sustatzeko asmoz.

Beti kanpaina bat egiten dugu, txotx irekieran eta sagardotegietan, errespetu giro hori zabaltzeko. Sagardogileek ere ahalegin hori egiten ari dira, jendea

«Txotx garaian, herriko gazte askok lan egiteko parada izaten dute»

«Gehienbat, martxoko larunbat eguerdian biltzen da jendetza handiena»

sagardotegietan begirunez ibil dadin, eta sagardotegitik atera eta gero jendeak herrian ere zentzuz joka dezan. Sagardogileen ahalegin hori mesedegarria izan da. Azken urteetan, festa giroa oso lasaia izan da Astigarragan, txotx garaian. Gainera,

jende gehiena sagardotegietara autobusez joaten da, ez dira autoan etortzen. Autobusen joan-etorri handia izaten da; larunbat eguerdian, izugarria. Jendea Bizkaitik etortzen da, Nafarroatik, baita Gipuzkoatik ere, autobusez eta gure garraio publikoak baliatuz.

Herrian informazio gune bat zabaltzen dugu etortzen diren guztientzat, informazioa jasotzeko eta mezu hori bidertzeko. Den-denak dira ongi etorriak, baina errespetuz ibiltzea eskatzen diegu.

Urte osoa irekita

REZOLA

SAGARDOTEGIA

Santio zeharra, 14
Astigarraga
608-14 33 32

rezolasagardotegia@gmail.com • rezolasagardotegia.infotres.com

SAGARLORE

Jaio da zizarra
Ha nacido el mosto flor

made in
ASTIGARRAGA
PETRITEGI

100% manzana sidreru
100% sagardo sagarra



Aizpurua autobus normala, 55 lagunentzat. AIZPURUA AUTOBUSAK

SAGARDOTEGIRA, AUTOBUSEZ

Sagardotegira sagardoa dastatzera, otordua egitera eta ongi pasatzera lasai joateko aukera ematen du Aizpurua Autobusak enpresak. Horretarako, zerbitzu egokia eta hainbat aukera eskaintzen ditu.



OIANUME SAGARDOTEGIA

Ergoien auzoa, 18 • URNIETA • 943-55 66 83
oianume@oianume.com • www.oianume.com

OSTIRAL GAUEAN SAGARDOTEGI MENUA

Bakailu tortilla
Legatza parrillan
Idi txuleta
Gazta irasagar eta intxaurrek
Sagardoa txotxetik
Akeita
KOPA OIANDISK

24.99 € (beza barne)



Autobus plataformaduna.
AIZPURUA AUTOBUSAK

eskura. Usurbilgo Osinalde industrialdean 3.000 metro koadroko industria pabiloia daukate, garaje batekin eta konponketa tailer batekin. «Kalitatea iparra da, erronka eta gure jarduerako eguneroko konpromisoa», Ana Aizpuruaren hitzetan.

Besteak beste, sagardotegietara joan-etorriak egiteko zerbitzua eskaintzen dute. Usurbil inguruko sagardotegietara: Hernani, Astigarraga, Usurbil, Aduna, Urnieta, Aia... «Gure inguruko jendeak nahi duen lekura joaten gara».

ESKAINITZA ZABALA

Jende kopuruaren arabera, autobus txikiagoak edo handiagoak eskaintzen dituzte. «Taldeak, familiak, kuadrillak, lankideak... eskaintza zabala daukagu taldeei egokitzeke: autobus txikiak 18-28 lagunentzat, autobus handiak talde ertaintentzat edo 35

lagunentzat, autobus normalak 55 lagunentzat, eta bereziak ere bai, 60-80 lagunentzat. Azken horiekin sagardotegiko sarrera eta errepedeak ere kontuan izan behar dira». Autobusa eta prezioa taldeetara egokitzen dituzte.

Bezeroak gustura joaten dira sagardotegira Aizpurua autobusetan, joan eta etorri lasai eta eroso egiten dutelako, autorik hartu behar izan gabe. «Sagardotegiak ongi pasatzeko aukera ederra eskaintzen duen bezala, guk hori guztia lasai egiteko aukera ematen dugu. Autoa norik eraman erabaki behar izan gabe, aparkatzeko arazorik gabe, alkohol probarik egin behar izan gabe... Lagunartean, jan eta edan lasai-lasai egiteko modua da».

Sagardotegietara joan nahi dutenei beldur gabe deitzeko gonbita egiten diete, eta sagardotegi batera taldean joan-etorri lasaia eta eroso egiteko aukera paregabea eskaintzen diete. Aizpurua autobus bat kontratatu edo erreserbatzeko, 943-36 32 90 telefono zenbakira deitu behar da. «Konpromisorik gabe ematen dugu aurrekontua gure telefonora deituta, eta kontratazioa ere era berean egin daiteke». Baita posta elektronikoz (info@autocares-aizpurua.es) eta web helbide honen bidez ere: Autocares-aizpurua.es/aurrekontua/.

Sagardotegietara joateko zerbitzuaz gain, Aizpurua enpresak beste hainbat eskaintzen ditu: upeltegietara joateko, ezkontzetara eta familia ospakizunetara joateko, ikastetxeetako eta enpresetako txangoak eta bidaiak egiteko, kongresu antolatzaileei, agentziei eta turismo antolatzaileei. Informazio gehiago, autocares-aizpurua.es helbidean.

Aizpurua Autobusak enpresak autobus eta minibus aukera handia eskaintzen du, matrikula berriko 35 unitateko autobus flota, hain zuzen. Scania-Irizar diseinua da ezaugarri nabarmenena. Motor onena eta karrozeria berritzaileena jartzen du erabiltzaile zorrotzenen

DONOSTIA
BILBO
GASTEIZ
IRUÑA
BIARRITZ





www.autocaresaizpurua.com

garraio konpainia aintzindaria | luxuzko ibilgailuak | 45 urteetako esperientzia | gidari prestatuak



Sagarrondo batzuk, Sagardoetxean. JON URBE / ARGAZKI PRESS

SAGARRONDOA LANDATZEKO ASPALDIKO TRADIZIOA

Gero eta sagasti gehiago landatzen dira, eta zainketa arretaz eta ganoraz egiten da. Ondorioz, dolareko sagar ekoizpena gero eta handiagoa da.

Ez dago argi sagarrondoak Euskal Herrian berez jaio zen edo kanpotik ekarri zen. Euskal Herrian sagarrondoari buruz ezagutzen den lehen aipamen idatzia 1014. urtekoa da. XIV. mendetik

aurrera sagar hitzetik datozen izen edo abizenei buruzko aipamen idatzi ugari daude. Besteak beste: *Sagastiberridi*, *Sagarminaga* eta *Sagarciague*.

1617. urtean argitaratu zen *Voya-*

geurs á Urrugne liburuak dio Euskal Herrira iristen ziren bisitariak harrizta gelditzen zirela hainbeste sagarrondo ikusita, Donostiatik Bilboraino.

Beraz, argi dago Euskal Herrian aspaldikoa dela sagarrondoak landatzeko ohitura. Gaur egun, gero eta sagarrondo gehiago landatzen dira. «Hori gora doa», dio Aitor Etxeandia teknikariak, zeinak sagastietan lan egiten duen.

MiNA
SAGARDOTEGIA
Inaxio Ollokiegi Zubillaga

Txorikoketa p. • Tel.: 943-55 52 20 • 20115 ASTIGARRAGA

SAGARDOTEGIA
MiNA Sagardotegia

- Klimatizatua
- Bertako sagarrekin egina
- Asteburutan egun osoan zabalik
- Egunero arratsaldeaz irekita

943-62 31 30
www.olasagardotegia.com

Sagarrondoak bi eta hamar metro arteko garaiera izan dezake, motaren arabera, eta 30 eta 100 urtera arteko bizitza izan dezake. Sagarrondo txikiak hiru edo lau urte betetzen dituztenean jadanik sagar ekoizpen on bat eman dezakete.

Sagarrondoak landatzeko gertatu den bilakaeraz ere mintzatu da Etxeandia: «Lehen, txertakak sagarrondo makatzetik ateratakoak ziren; txertaka frankorekin egiten zen, eta kopa itxura hartzen zuten. Ondoren, gero eta gehiago, erdiko ardatzaren motakoak jartzen hasi ziren; txikiagoak di-

«Zainketa aldetik asko hobetu da, bai ekoizpen integratuan, bai ekoizpen ekologikoan»

«Gutxieneko mantentze lana egiten bada, ekoizpena azkar igotzen da»

AITOR ETXEANDIA
Teknikaria

te. «Horrek kontu asko errazten ditu, bilketa, gehienbat».

Nekazariak sagastiak ohiko lursailetan jartzen dituzte orain ere, «baina gero eta gehiago lur mekanizagarriak bilatzen dituzte, traktoreekin-eta ari-zeko eta lanak errazteko».

HAINBAT TRATAMENDU

Normalean, sagarrondoek urtero lau tratamendu izaten dituzte. Udazken bukaeran eta udaberri hasieran, trata-

ren txertakak klonalekin. Beste fase bat ere egon da: batzuk fruta hesiak egiten hasi dira; hau da, kimaketa ere mekanizatzen hasi dira».

Lehen, askotan, sagarrondo aldaerak nahastentzen ziren, eta orain sagardogile gehienek era ordenatuago batean jartzen dituz-



Sagar mota batzuk, Igartubeiti museoa. GOTZON ARANBURU / ARGAZKI PRESS

menduak kobreak bidez egiten dituzte, onddoen aurka. Beste bi tratamendu sagar harraren kontra egiten dituzte. «Horrekin guztiarekin behintzat sagastien osasuna ziurtatzen da».

Sagastien zainketa lehen ere arretaz egiten zela dio Etxeandiak. «Aspaldi bai; gero sagarraren kultura hemen galdu egin zen, industrializazioa zela eta, eta azken urteetan berriz ere berreskuratzen ari da».

Gaur egun, sagastiak ongi zaintzen dira. «Zainketak gero eta gehiago egiten dira, jendeak kimatu egiten du, lurrrak ongarriritu... Baina ongarritu ez dute edozein gauzarekin edo kopururekin egiten, planifikatu egiten da, eta lurrrari behar duena ematen zaio, gehiago ez. Alde horretatik asko hobetu da, bai ekoizpen integratuan, bai ekoizpen ekologikoan, bietan».

Hori guztia ekoizpenetako emaitzetan nabari da. «Ekoizpenak igotzen ari dira, oro har. Gutxieneko mantentze

lana egiten bada, ekoizpena azkar igotzen da».

Zainketa erleen bidez egiten duenik ere bada. Iñaki Bengoetxeak, Irungo Ola sagardotegiaren jabeak, erleenekin polinizatzen ditu sagastiak, sagar uzta egokia lortzeko. Ezinbestekoak zaizkio erleak sagar uzta egokia lortzeko. Hark, gainera, bi jarduera egiten ditu: sagardoa egiten du, eta erlezaina da duela hogeita urte ingurutik. Hamabost hektarea sagasti ditu; horietako bederatzia, Meaka auzoko Arantzateko gainean. Azken horiek 50 erle erreginarekin polinizatzen ditu. «Urte osoan edukitzen ditut erleak etxearen inguruan», BERRIATI 2014ko maiatzean esan zionez.

Sagarrondoei eta dolareko sagarrari buruzko informazio gehiago Sagardotxea euskal sagardoaren museoa (www.sagardotxea.com) eta Igartubeiti baserri museoa (www.igartubeitibaserra.eus) lor daiteke.



Bizkaian, bizkaiko sagardoa

Arriola
Laka-Erdi Sagardoa
Juan Amalobeta Arriola
Tel.: 94 613 91 78

Barria
Etxebarria Sagardoa
Itxier Etxebarria
Tel.: 94 674 20 10

Colaga
Maizkerrazaga Sagardoa
Maribel Abojo
Tel.: 691 296 915

Erriola
Laneko Koop
Lerribai Sagardoa
Tel.: 94 684 20 28

Irriola
Trazola Sagardoa
Sonia Ibañeta Arriola
Tel.: 94 681 60 44

Erriola
Erriola Sagardoa
Andoni Ojanguen Zorroza
Tel.: 94 457 32 85

Barria
Ajepe Sagardoa
José Antonio Bilbao
Tel.: 94 616 82 85

Erriola
Sebastianeko Sagardoa
Anton Aresti Eiguren
Tel.: 94 684 26 42

Erriola
Kandi Sagardoa
Sat Kandi
Tel.: 94 625 33 82

Erriola
Uarte Sagardoa
José Antonio Zamalloa
Tel.: 94 690 88 15



bizkaiko sagardogileak



Sagardo batzuk, aztertzeko prest, Fraisoroko laborategian. FRAISORO

ETENGABE IKERTZEN

Fraisoroko ingurumen eta nekazaritza laborategian, sagardoari ikuspuntu fisiko-kimikotik eta sentsoialetik erreparatzen diote, eta sagardoaren biologia aztertzen dute, baita sagarra oso heldua edo heldu gabe dagoenean sagardoak izango duen zaporea ere.

Zizurkilgo Fraisoroko laborategiak ingurumen eta landa ingurunearen garapen alorreko analisi, ebaluazio eta aholkularitza zerbitzua eskaintzen die Gipuzkoako Foru Aldundiko Berri-

kuntzako, Landa Garapeneko eta Turismo departamentuari eta gainerako departamentuei, beste erakunde batzuei, eta bere zerbitzuak eskatzen dituzten beste zenbaiti.

Sagardoa aztertzen dutenean hainbat ikuspuntutatik erreparatzen diote. Ikuspuntu fisiko-kimikotik begiratu-ta, pHa, erabateko azidotasuna, azidotasun aldakorra eta beste hainbat parametro kontuan izaten dituzte. «Sagardoak izan ditzakeen akats batzuk ere aztertzen ditugu», Domingo Merino Fraisoroko ingurumen eta nekazaritza laborategiko zuzendariaren hitzetan. «Betiere, araudi bat bete behar da: erabateko azidotasuna, metanola eta abar. Beste substantzia batzuk, berriz, sagardoa jadanik egina ote dagoen jakiteko aztertu behar dira».

Sagardoan bi hartidura mota gertatzen dira. Alkohol hartiduran azukrea alkohol bihurtzen da, eta hartidura malolaktikoan azido malikoa azido laktiko bihurtzen da. «Bi hartidura horiek gertatzen direnean sagardoa jadanik egina dago, baina prozesu hori kontrolatzeko sagardogileak guk egiten ditugun analisi fisiko-kimikoak erabiltzen ditu».

KOLOREA, USAINA ETA ZAPOREA

Analisi sentsoarialean, berriz, sagardoaren koloreari, usainari eta zapoari begiratzen diete. «Sagardoa ona den ala ez, gustukoa den ala ez neurtzen dugu. Sagardo bat ikuspuntu fisiko-kimikotik zuzena izan daiteke, baina zentzumenaldetik akatsen bat izan dezake eta ez da atsegina».

Horretarako, Enac (Espainiako Egiaztatze Erakunde Nazionala) erakundeak ziurtatutako panel bat erabiltzen dute, tresna moduan. «Sagardogileari sagardo bakoitzaren gaineko puntuazio bat ematen diogu. Esaterako, 85 puntu dituen sagardo bikaina da eta 43 puntu dituen eskasa».


Ipintza
 sagardotegia
 asteartetik
 ostiralera
 menua
20€

Santio zeharra, 12
 Astigarraga
 688 811 724
 www.ipintza.com

OTATZA
 TOLARE
 SAGARDOEGIA
 SAGARDO NATURALA

Otatza Baserría · Tel.: 943-80 17 57 / 615-76 00 45 · 20214 Zerain

Aipatu azterketak ez ezik, zenbait hobekuntza egitasmotan lan egiten dute Fraisoroko laborategian. «Sagardogileari beste tresna bat eskaintzeko, sagardoaren biologia ere aztertzen dugu. Sagardoak mikroorganismo batzuk ditu, legamiak, substantzia batzuk sortzen dituztenak, hartxidura egiten laguntzen dutenak eta sagardoaren prozesu osoan, azken batean. Adibide bat jartzearen, legamia jakin batek, *bretanomics* legamiak esaterako, ezatseginak diren usainak eta zaporeak sortzen ditu. Legamiak beharrezkoak dira alkohol hartxidura gertatzeko, baina legamia batzuk egokiak dira eta beste batzuk ez. Zenbait bakterioekin berdin gertatzen da».

Hori guztia kontuan izaten dute muztioan edo sagardoan, sagardogileak prozesuan legamia egokiak dituen ala ez jakin dezan.

Azkenik, sagarra oso heldua edo heldu gabe dagoenean sagardoak izango duen zaporea ere aztertzen dute Fraisoroko laborategian.

Informazio gehiago: www.fraisoro.net helbidean.



Sagar bat aztertzen Fraisoroko laborategian. JON URBE / ARGAZKI PRESS







Edan eta goza Gaztañaga sagardoa





Buruntza auzoa
ANDOAIN
943-59 19 68
info@sidreriagaztañaga.com
www.sidreriagaztañaga.com

EUSKO LABELAREN UZTA OPAROA

2014. urtean 180 hektarea inguru erabili dira, eta ia 900 mila izan da bildutako litro kopurua.

Eusko Label sagardoaren uzta berria oparoa izan da, Hazi fundazioko arduradunek azpimarratu dutenez: «Bai, oro har, gustura gaude ekoizpenarekin. Urte oparoa izan da kalitateari zein kantitateari dagokienez».

Eusko Label sagardoaren bosgarren uzta izan da. «Poliki-poliki ari da indartzen. Egia esan, produktu berri bat merkaturatu jartzen denean kostatu egiten da, eta, gainera, suertatu diren garai zailak aintzat hartuta, uste dugu ibilbide polita izan duela».

2014ko uztan Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako 28 sagardotegi egin dute Hazi erakundeak ziurtatutako Eusko Label sagardoa: Arabako sagardotegi batek, Bizkaiko 6 sagardotegi eta Gipuzkoako beste 21 sagardotegi. Gero eta sagardotegi gehiago ari dira Eusko Label sagardoa ekoizten, Hazi erakunde arduradunek baieztatu dutenez.

SAGARDO EDERRA

Eusko Label sagardoa %100 hemengo sagarraz egina da. Uzta berriaren kalitate handiko sagarra jaso dute, eta, ondorioz, sagardo berria ederra aterata da. «Ikusi egin beharko da, baina lehenengo analisiek eta dastaketek diotenaren arabera oso sagardo ederra aterata da».

Eusko Label ziurtagiria duten produktu guztietan bezala Euskal Sagardoa ekoizteko bete behar diren zehaztasun guztiak produktuaren araudi teknikoan daude jasota. Aipatu araudia sagar ekoizleek, sagardogileek, teknikariek, Hazi erakunde arduradunek eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza saileko ordezkariak osatutako lan talde batek finkatzen du. Hazi erakunde arduratzen da produktu ho-

rren kontrol eta egiaztapen lanak egiteaz. «Era berean, azpimarratu behar da marka publiko eta ofizialen kontrol sistemek behar bezala funtzionatzen dutela, eta, ikusiko balitz araudia ez dela betetzen, ondorioak eta behar diren neurriak hartuko lirateke».

Produktua kontrolatzeko lanak ez ezik, produktuaren promozio lanak ere egiten dituzte, merkaturatu nabarmentzeko, EAEko nekazaritza eta arrantza sektoreari balioa emanez.

Euskal Sagardoa, Eusko Labela duten produktu guztiak bezala, hasieratik bukaeraino «kontrolatua» egoten da. «Batetik, sagarraren ekoizpena kontrolatu da, ekoizleak ikuskatu dira, eta haien sagasti eta sagarrak kontrolatu dira. Halaber, araudiak sagarra sagardotegietara nola garraiatu behar den adierazten du, eta, azkenik, sagardoa nola egin, ontziratatu eta etiketatu behar den ere jasotzen du».

Azken batean, Eusko Label bereizgarriaren bidez, sagardoaren inguruko prozesu osoa indartzea da asmoa: «Alegia, ekoizpena, elaborazioa eta kontsumoa bultzatzea. Garbi eduki behar da kate osoa kontuan eduki behar dela, eta batez ere produktu bat indartzerakoan hemengo ekoizpenaren alde egin dela. %100 babestea hemengo sagarrarekin egindako produktua».

AZTERKETA UGARI

Ekoizpen prozesuan, produktuaren azterketa ugari egiten dira hainbat laborategitan eta unibertsitatetan. 15 ezaugarri aztertzen dira guztira, besteak beste azidotetasuna, alkohol maila, pHa, azido malikoa, azukreak, errautsak eta fenolak. «Azken proba, ordea, kalifikazio batzordeak egiten du. Batzorde horrek produktua dastatzen du, eta bere ezaugarri organoleptikoak balioesten ditu, ikusmenaren, usaimenaren eta dastamenaren aldetik».


Hainbat hartziduraren ondoren sagar muztioa sagardo bihurtu denean, sagardogileak eta Hazi erakunde teknikaiek erabakitzen dute produktua botilaratzeko unerik egokiena zein den. Sagardoa botilaratzeko teknologia asko aurreratu dira, eta, egun, sagardotegi guztiek azken belaunaldiko makinak dauzkate botilaratzeko.

Eusko Label ziurtagiria duen Euskal Sagardoa onetsitako botila batean ontziratzen da. Horri esker, produktua erraz ezagutu daiteke, eta behar bezala babestuta dago argiak honda ez dezan. Ziurtatutako produktuaren identifikazioa eta etiketatzea Kalitatea fundazioak gainbegiratzen ditu. Zenbakituta eta kontrolatuta dauden etiketak erabiltzen dira horretarako.

Eusko Label sagardoa gehien bat Euskal Herrian banatzen da. «Dena dela, ari da pixkanaka izena hartzen Espainiako Estatuan ere. Hainbat promozio egin da, batez ere Madril eta Bartzelonan, eta haren banaketak eta salmentak eragina izan du merkatu haieran», Hazi erakunde arduradunek adierazi dutenez.

Eusko Label sagardoari buruzko informazio gehiago: www.euskolabel-sagardoa.com helbidean.





Euskal Herrian txotx

Iturrieta



Tel.: 945-44 53 85
www.iturrietasagardotegia.blogspot.com
Arraga auzoa, z/g · Aramaio

Trebiñu



Tel.: 945-24 48 52
kmarkinez@euskaltel.net
Azkartza · Trebiñu

Uxarte



Tel.: 94-630 88 15
www.uxarte.com
Montorra, 6 · 48340 Zornotza

Aburuza



Tel.: 943-69 24 52
aburuza@sidrasaburuza.net
www.sidrasaburuza.net
Goiburu auzoa · Olatza etxea · Aduna

R. Zabala



Tel.: 943-69 07 74
www.rzabala.com
info@rzabala.com
Garagartza baserria · Aduna

Satxota



Tel.: 943-83 57 38 / 618-303 584
www.sidreriasatxota.com
Santio erreka auzoa, 3 · Aia

Olagi



Tel.: 943-88 77 26
olagi.altzaga@gmail.com
Urrutibera baserria · Altzaga

Gaztañaga



Tel.: 943-59 19 68
www.sidrerriagaztanaga.com
info@sidrerriagaztanaga.com
Helbidea: Buruntza auzoa · Andoain

Mizpiradi



Tel.: 943-59 39 54
www.mizpiradisagardotegia.com
mizpiradisagardotegia@gmail.com
Leizotz auzoa z/g · Andoain

Akelenea



Tel.: 943-33 33 33
www.sidreriaakelenea.com
akelenea@hotmail.es
Oialume bidea, 57 · Astigarraga

Gartziategi



Tel.: 943-46 96 74
www.gartziategi.com
gartziategi@gmail.com
Martutene pas. 139 · Astigarraga

Gurutzeta



Tel.: 943-55 22 42
www.gurutzeta.com
gurutzeta@gurutzeta.com
Oialume bidea, 63 · Astigarraga

Ipintza



Tel.: 688 81 17 24
www.ipintza.com
ipintza@ipintza.com
Santio Zeharra, 12 · Astigarraga

Larrarte



Tel.: 943-55 56 47 / 679 123 892
www.larrarte.net
Muñagorri Enea · Astigarraga

Lizeaga



Tel.: 943-46 82 90
lizeagasagardoak@gmail.com
Gartziategi baserria
Astigarraga

Mina



Tel.: 943-55 52 20
Txoritokieta bidea 50
Astigarraga

Oialume Zar



Tel.: 943-55 29 38 / 722-38 04 16
www.oialumezar.com
mail@oialumezar.com
Mikel Arozamena bidea, 16 · Astigarraga

Petritegi



Tel.: 943-45 71 88
www.petritegi.com
sidreria@petritegi.com
Petritegi bidea · Astigarraga

Rezola



Tel.: 608-14 33 32
www.rezolasagardotegia.com
rezolasagardotegia@gmail.com
Santio zeharra, 14 · Astigarraga

Sarasola



Tel.: 943-55 57 46
jzabalegui@wanadoo.com
oiarbide bidea 14 · Astigarraga

Zapiain



Tel.: 943-33 03 33
www.zapiainsagardoa.com
gestionzapiain@terra.es
Kale Nagusia, 96 · Astigarraga

Akarregi



Tel.: 943-33 07 13 / 660 144 560
akarregisagardotegia@hotmail.com
Akarregi auzoa, 5 · Hernani

Goiko Lastola



Tel.: 943-55 32 72
Ereñotzu auzoa, 89 · Hernani

Itxas-Buru



Tel.: 943-55 68 79
www.itxasburusagardotegia.com
Osiñaga auzoa, 54 · Hernani

Larre-Gain



Tel.: 943-55 58 46 / 616-28 78 67
Ereñotzu auzoa, 20 · Hernani

Olaizola



Tel.: 943-33 67 31
www.olaizolasagardotegia.com
Osiñaga auzoa, 38 · Hernani

Otsua-Enea



Tel.: 943-55 68 94
www.otsua-enea.com
info@otsua-enea.com
Osiñaga auzoa · Hernani

Zelaia



Tel.: 943-55 58 51
www.zelaia.es
zelaia@zelaia.es
Martindegi auzoa, 29 · Hernani

Ola



Tel.: 943-62 31 30
www.olasagardotegia.net
olasagardotegia@hotmail.com
Meaka auzoa, 102 · Irun

Eguzkitza tolare- sagardotegia



Tel.: 943-67 26 13
Usabal auzoa · Amaroiz · Tolosa

Isastegi



Tel.: 943-65 29 64
www.isastegi.com
